

# ZER BERRI

## Aizarnazabalen



MAIATZA 2026

---

### GAIAK

1. Ispiluaren aurrean-hitzaldia.
2. Onintza Enbeitaren liburuaren aurkezpena.
3. Samiel Txiki eguna.
4. "Plazerra" gai duen tailerra.
5. Bertso Afaria.
6. Udalekuetako begiraleen izenematea irekia.
7. Ibilgailu teknikoan errebisioa.
8. Uema Eguna.
9. Lehenengo jaunartzea.
10. I. Aizarnazabalgo mendi martxa.
11. Indamendi Eguna.
12. Samiel Jaietan txupinazoa botatzeko bozka.

Langileen eguna

Hilaren ardatza

SanMiel Txikietan

Kantu eta dantza

Hogeita hiruan berriz

Dago mendi-martxa

Eguraldi onantzat dakeu esperantza

Ederra dator eta

Gozatu maiatza!

(Adiskide Bertso Eskola)

## **1. ISPILUAREN AURREAN-HITZALDIA**

"Urola Erdia ispiluaren aurrean" Gipuzkoako Urola Erdiko sei udalerriek (Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Zestoa eta Aizarnazabal) martxan jarritako kanpaina da, 2025eko abenduan aurkeztua.

### **Kanpainaren helburuak:**

- ☞ **Jasangarritasuna sustatzea:** Eskualdeko ingurumen eta gizarte erronkez hausnartzea
- ☞ **Larrialdi klimatikoari erantzutea:** Klima aldaketak herritarrei nola eragiten dien aztertzea, ikuspegi "integral" batekin .
- ☞ **Tokiko kontsumoa bultzatzea:** Bertako produktuen eta kontsumo arduratsuaren garrantzia nabarmentzea .

Gaiaren inguruan informazioa zabaldu eta gaia lantzeko **maiatzak 5ean** , arratsaldeko **18:00etan**, hitzaldia bat eskeiniko da **Basakaitz Herri Eskolan**.

## **2.ONINTZA ENBEITAREN LIBURUAREN AURKEZPENA**

Onintza Enbeita bertsolari eta idazleak "Bizitza baten txatalak" liburua aurkeztuko du **maiatzaren 7an** arratsaldeko **18:00etan** **Indamendi Zahar Etxean**.

Bizitza lurrari lotuta eman duen emakume baten kontakizuna jasotzen du liburua ,hainbat eta hainbat emakume baserritarren memoria.

## **3. SAMIEL TXIKI EGUNA**

Egitaraua atzeko orrialdean doakizue.

## **4. "PLAZERRA" GAI DUEN TAILLERRA**

Aizarnazabalgo Mugimendu Feministak ondorengo tailerra antolatu du psikologa/sexologa baten eskutik.

- **Tailerra:** "Plazerra"
- **Eguna:** Maiatzak 13
- **Lekua, ordua:** lauburuko proiektio gelan arratsaldeko 18:00etan.

## **5. BERTSO AFARIA**

**Maiatzaren 15 ean** gaueko 21:00etan Mikel Elkartean, Bertso Afaria ospatuko da Adiskide Bertso Elkartearen eskutik:

Bertsolariak:

- Maialen Lujanbio Zugasti eta Xabat Illarregi Marzol

Txartelak Uztarrin daude salgai. Eskuratzeko azken eguna: Maiatzak 10, igandea.

Txartel kopurua saltzean ez da gehiago ateratzeko aukerarik izango.

## **6. UDALEKUETAKO BEGIRALEEN IZEN-EMATE EPEA IREKIRIK**

Guraso Elkartek uztaileko udalekuetan begirale lanetan jarduteko izen-emate epea ireki du.

**Maiatzak 15**, ostirala, izango da kurrikuluma entregatzeko azken eguna.



Eskatzen diren baldintzak:

- Begirale titulua izatea edo/eta umeekin antzeko ekintzetan eskarmentua izatea.
  - 18 urte baino gehiago izatea.
  - Euskera jakitea.
- Baloratuko den puntua: herrikoa izatea.

Kurrikuluma basakaitz@gmail.com helbidera bidali behar da.

## **7.-IBILGAILU TEKNIKOEN ERREBISIOAK**

Ibilgailu teknikoaren errebisioa beheko datan izango da herriko plazan:

- **Maiatzak 14: eguerdiko 13:00etan**

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Zirkulazio baimena, azterketa teknikoaren txartela eta aseguruaren ordainagiria.

## **8.- UDALERRI EUSKALDUNEN EGUNA**

**Maiatzaren 16an** UEMA Udalerri Euskaldunen Eguna ospatuko du Otxandion. Egitaraua bere osotasunean [www.aizarnazabal.eus](http://www.aizarnazabal.eus) webgunean eta **Telegram-era** zintzilikaturik daude.

## **9.- LEHENENGO JAUNARTZEA**

**Maiatzak 17** igandea, 12:30etako elizkizunean herriko zortzi gaztetxoek lehenengo jaunartzea eguna izango da.

## **10.- I. AIZARNAZABALGO MENDI MARTXA**

**Maiatzaren 23an** izango da. Informazioa osoa ondorengo helbideetan eskuragai.

- [www.aizarnazabal.eus](http://www.aizarnazabal.eus)
- **Telegram**

## **11.-INDAMENDI EGUNA**

Udaleko kirol sailak **maiatzaren 31a, Indamendi Eguna** dela eta, Indamendira mendi igoera antolatu du. Irteera goizeko 9:00etan izango da.. Partaideek pintxo batetaz gozatuko dute.

## **12.- SAMIEL JAIETAN TXUPINAZOA BOTATZEKO BOZKA.**

Aurtengo jaietako txupinazoa nori botako duen parte hartzeko aukera izango dute herritarrak.Ondorengo bi galderi erantzun behar da:

- 1.- Zeinek merezi du aurtengo jaietako txupinazoa botatzea?**
- 2.- Zergatik?**

Erantzunak jakinarazteko bi moduak:

- [kultura@aizarnazabal.eus](mailto:kultura@aizarnazabal.eus) posta helbidera bidaliz.
- Udaletxeko buzoian erantzunak utziz.

Izendapen gehienak jasotzen dituztenen hiruen artean udalak eta jaien antolakutzaren talde eragilerak erabakiko du hautagaia.

